



ZoOo

hitz basatia

maiatzaren 13^{tik} ekainaren 24^{ra}

Vitoria-Gasteiz, 2010

ZoOo kultur antropologia, biologia eta praktika artistikoak bezalako alor ezberdinetatik abiatuta animalia-aren figurari buruzko elkarrizketa proposatzen duen erakusketa egitasmoa da. Hain ikasia nahiz hurbila eta aldiberean arrotza bezain arraroa zaigun unibertso hortara, animalien unibertsoa alegia egindako hurbilketa ariketa da. Helburu horrekin 2009ko udan ospatu zen ZoOoren lehen saioak animalien ikusizko edo irudi-errepresentazioari so egin zion bezala, bigarren jardunaldi hauek aldiz fenomeno akustikoa izango dute abiapuntu, entzumenaren bidez mundu paralelo hau ezagutzeko parada eskainiz. Soinu bakoitza modu jakin batean entzuten eta baliatzen erakutsi diguten jakintza eredu ofizialak gaindituz, hitz eta kantuen eskutik eramaten uzteko gonbidapena da honako hau. Horrelako ariketa batek irekitzen dituen ikuspegi berriek animalien soinu-zoko unibertso zabal hori hobeto aditzen, nahiz ez konprenitu, erakutsiko digute.

ZoOo Cristina Enea fundazioak sortutako egitasmoa da, Donostiako Arteleku arte garaikideko zentruko Audiolab sailarekin eta Vitoria-Gasteizko Amarika Proiektuarekin elkarlanean garatutakoa eta Donostiako Aquariumaren parte hartzearekin.

sarpera

Mendebaldeko pentsamenduarentzat hizkuntzaren jabegoak gizakiaren eta beste izakien arteko banaketa zurruna suposatu du. Gizabanakoa unibertsoaren zentru bezala aurkezteko helburuarekin filosofia modernoak barnetasuna (kontzientzia eta arima modura) soilik gizakiaren ezaugarri gisara aurkeztu digu. Ondorioz, hainbat mendetan zehar animalien komunikazioari buruzko jakintzak hizkera hauek soilik funtzio biologikoen gidari adierazkor izatera mugatu ditu.

Baina unibertsoa kulturaren eta naturaren artean banatzen duen pentsakera eratze soziala besterik ez da, gure esperientziaren adierazpen zuzen eta bapatekoarekin bateragarria ez dena gainera: Beti izan dira eta izango dira animaliekin, paisaiarekin edo naturarekin ditugun erlazioak ulertzeko beste moduak.

Hainbestean gizakiak teknologikoki eta sinbolikoki okupatutako eta eskuhartutako mundu garaikide hau, animaliak entzuten ahantzi duen mundua da, eta ondorioz gure zentzumenek oraindik ere beste mundu animalia horrekin gordetzen dituen lotura estuak ahanzteko joera duena.

Gure begiradak eta entzumenak animalitasunaren eta gizakitasunaren arteko tentsioari adi jartzeko, bide hori bi norabideetan eginez; bestelako erritmo eta denborak onartzeko; animaliak gobernatzeko eta sailkatzeko sortzen ditugun gailuak zalantzan jartzeko; bizilagun animalia entzuteko beste moduak ezagutzeko... ZoOok gure ingurunearekin mantentzen ditugun erlazioak eta gure gizaki izaeraren etorkizuna bera birpentsatzeko aukera eskaini nahi du.

Maiatzaren Ekainaren
13tik - 24ra



ERAKUSKETA:

biolentzia, errepikapena **Nader Koochaki**

Oñatiko artzain txakur txapelketaren eskenatokia aitzakiatzat hartu eta bitartekaritzaren nozioa zeharkatuz artzaintzaren errepresentazioaz galdekatzen duen lan analitiko eta kreatiboa da.

Bitarteko teknologia edo artefaktuak, errealitateak operatiboa izateko inmanenteki behar dituen bikoizketak dira. Eta hauek, adierazle politiko diren heinean, errealitatea egitate gisa zalantzan jartzen dute, berau ere artefaktu bat gehiago dela iragarritz. Erresonantzia horiek itzuliz, elkarri erreferentzia egiten dioten emaitza sorta batek osatzen du biolentzia, errepikapena erakusketa. Ordena horiek sustengatzen dituzten dispositiboak baliatzeko eta artikulatzeko saiakeratik sortutako hainbat pieza erakusten ditu.

Naturaren eta kulturaren arteko bidegurutzeak nahiz gisa horretako taxonomia eta klasifikazioen tentsioak goraiatzeko eta estetizatze asmoarekin garatutako lana da, ezarian, saiakera horien berri emateko dispositibo baten entseguan eratorri dena.

Maiatzaren 19.00 KONTZERTUA: Xabier Erkizia

13a osleguna

Animalien soinuen mundua iada ulertezina eta arrotza egiten bazaigu, entzungarria den mugetatik at bada bestelako soinuzko unibertsoak, oraindik are ezezagunagoak zaizkigunak.

Espektru zabal eta mugagabe horren barnean naturak eraikitzen eta erabiltzen dituen komunikazio sareak ez ditugu ez ulertzen ezta kasu gehienetan sentitzen ere. Beharbada

horregatik ez diegu jaramonik ere egiten ihes egiten diguten soinu horiei, nahiz eta hauek, are gehiago teknologiek egiten duten espektru horren erabilerarengatik, guregan baduten eragin zuzenik. Argi dago beraz neurri batean, infrasoinuen eta ultrasoinuen mundu hori animaliekin partekatzen dugun espazioa ere badela, nahiz eta ez garen horren jakitun. Hain zuzen, emanaldi honek komunikazio sare konplexu hortako eta paradoxikoki gure belarrientzat askotan musikala ere izan daitekeen frekuentzia sail hortako ahotsak erabiliko ditu abiapuntu bezala. Kontzertuaren ondotik ERAKUSKETAREN IREKIERA ekitaldia ospatuko da.



Maiatzaren 19.00 KONTZERTUA:

14a
ostirala

Francisco López

Francisco López (Madrid, 1964) biologo eta soinu artistarentzat zientziak, kasu honetan

Bioakustikak, soinuzko inguruneari buruz eskaini duen ikuspegia murrizketa ariketa batean laburbiltzen da, bere interesei jarraituz, animalien soinu unibertsoa soilik funtzio kategorizatzaileetara mugatu baitu. Baina edozein soinuzko ingurunek, eta bereziki ezaugarri akusmatikoak dituenak, oihaneak kasu, zientziak ahantzi edo baztertzen duen konplexutasun ikaragarria gordetzen du. Hain zuzen aberastasun bukaezin horrenganako jakinmina da Lopezen lana modu argiengan definitzen duen ezaugarria. Berak, azken 20 urteok mundu zabaleko ingurune desberdinak ezagutzen pasa ditu, ondotik bertan bildutako materialekin, edonorren belarriak kuzkurtzeko adinako erabateko musika modukoa eraikitzeko.



Ekainaren

2 eta **3**an
asteazkena osteguna

19.00 ZINE EMANALDIA:

ZOOO SOINUA: Andreas Wutz

ZoOo-soinua izeneko zinema egitarau honek hizkuntzaren eta animalien komunikazioaren alorrak zeharkatzen dituzten pelikula

dokumentari eta artistikoak biltzen ditu. Badira hizkuntza jaiogabeak, ikasi beharrekoak edo gizakiaren kasuan bezala bien arteko nahasketan oinarritutakoak. Soilik laguntza teknikoarekin jaso ditzazkegun zeinuak ere badaude, baita bere testuingurua ulertzen ez badugu igarkizun modura gelditzen diren mezuak ere. Eta askotan ez gara hortarako gai, eta gurutzatu ezin dugun muga batera iristen gara. Horregatik askotan zientzia linguistikoek eta etiologikoek, eremu etikoari, lurraldekoari edo politikoari dagozkien galderen bidez egiten dute topo. Zinema egitarau honetan bezala.



I Zeinuak eta gorputzen idazkera

Emanaldi honek, besteak beste erleen dantzari buruzko lehen pelikula, ikusizko nahiz entzunezko mezuen estrukturei edo mugimenduen mezuei eta hauen oharpenei buruzko filmak biltzen ditu. Azkenik, dena grabaturiko oihan baten imaginazio artistikora mugatzen da edo gizaki-hegazti mimetismo batean bihurtzen da.

Iraupena: 60 m

Filmak

Marcus Coates

Dawn Chorus

Erresuma Batua 2005 - 15 m

Karl von Frisch

Sprache der Bienen // Erleen hizkuntza

Alemania 1926 - 8 m

Hermann Kalkofen

Signalverhalten und Signalstrukturen //

Señalatzekintzak eta egiturak

Alemania 1963-80 - 11 m

Jean Painlevé

Ecriture du mouvement

Frantzia 1947 - 10 m

Wolfgang Heinrich & Klaus Dornfeldt

Elektroortung und – Kommunikation beim Tapirfisch //

Elefante arrainaren sonar elektriko eta komunikazioa

Alem.1986 - 9 m

Il Ahoskera eta honen basati izaerarako itzulera Bigarren emanaldi hau osatzen duten pelikulek hizkuntza batek munduan indarrez sartu edo ateratzeko duen ahalbidea ikertzeko aukera eskaintzen du. Azkenean animaliarenganako edo gizakiarenganako hurbilketa linguistikoak antzekoak dira eta hitzkuntzaren galerak zanpatzen dugun zolaren hauskortasuna azalera dezake.


Iraupena: 80 m

Filmak

Jane Goodall & Peter Marler
Vocalizations of Wild Chimpanzees
AEB 1971 - 40 m

Karl Lemieux & Francisco López
Mamori
Kanada/ Espainia 2010 - 8 m

Luke Fowler
Bogman Palmjaguar
Erresuma Batua 2007 - 30 m



biografiak

Nader Koochaki

Soziologian lizentziatua, sorkuntzarako beka bat jaso eta artearen eremuan lanean hasia erabaki du akademiaren zurruntasunetik aldentzeko asmoz. Astigarreta eta Arteleku artean bizi eta lan egiten du.

Xabier Erkizia

Soinu artista, ekoizlea, kuradorea eta kazetaria. Azken 15 urteotan hainbat alor artistiko ezberdinetako sortzailekin egin du lan eta hainbat grabaketa, soinu-instalazio, ikusentzunezko lan baita eskenako obretan hartu du parte. Ertz kultur elkartearen hasierako kide da, baita izen bereko nazioarteko jaialdiko arduradun ere. Horrez gain Arteleku arte garaikideko zentruko Audiolab departamentuan kordinatzaile lanak betetzen ditu eta besteak beste [un]common sounds, Soinumapa, Hots! radio edo Noise & Capitalim bezalako egitasmoetako kide da.

Francisco López

Francisco López nazioarteko musika esperimentalaren eskenako figura aipagarri eta ezagunenetakoa da. Soinuzko sorkuntzaren eta landa grabaketen munduan duen 25 urteko esperientzia luzeak hala argitzen badu ere, ibilbide hortan eraiki duen soinu unibertso pertsonal eta ikonoklasta da bere ekarpena zuzenen erakusten duena. Ehundaka kontzertu, grabaketa egitasmo eta soinu instalazio aurkeztu ditu bost kontinenteetako 50 herrialde baino gehiagotan. Bere soinuzko piezen katalogo zabala (nazioarteko 100 artista baino gehiagorekin zuzenean nahiz estudioan egindako elkarlanak barne) 150 diskete baino gehiagotan topa daiteke.

Andreas Wutz

Artista eta zinegilea da, 1962an Munichen jaio eta egun Bartzelonan bizi da. Bere pelikulak hainbat zinemaldi eta arte erakusketetan proiektatu dira. "Kino der Piloten" (gidari zinea) sortu zuen. www.kinoderpiloten.eu

ZoOo-k Donostian jarraituko du:

ekainatik urrira

Fundación Cristina Enea

Arteleku

Aquarium

ERAKUSKETA: hitz basatia

Bill Burns, Vanessa Lemm,

Andreas Wutz, Marcel Broodthaers,

Xabier Erkizia, Nader Koochaki,

Yannick Dauby, Jorge Riechmann,

Slavek Kwi, Hydrophonia...

Informazio gehiagorako:

www.cristinaenea.org || www.amarika.org || www.arteleku.net || www.arteleku.net/audiolab || www.hots-radio.info

Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia Archivo del Territorio Histórico de Álava

Miguel de Unamuno, 1 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Astelehenetik ostiralera **08:15 - 14:30**

Lunes a viernes **18:00 - 21:00**

945181929 // info@amarika.org

Oier Etxeberriak
garaturiko egitasmoa



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶



cristinaenea
— fundazioa —

Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián

audiolab

Proyecto
Amarika
Proiektua



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipuzkoa



kutxa

Diseinua: Xavier Balderas